

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea isuri etxekoez besteko isuriak arautzen dituen udal ordenantzari eta isuriak jagon eta kontrolatzeko planari

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik eta alegaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartu da etxekoez besteko isuriak arautzen dituen udal ordenantza eta isuriak jagon eta kontrolatzeko plana.

Etxekoez besteko isuriak arautzen dituen udal ordenantza

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Ordenantza honek arautzen ditu udalaren estolderia sarera egiten diren hondakin uren isuri etxekoez bestekoak, Asparreneko udalerrian gauzatzen diren jardueretatik datozenak.

Ordenantza honi dagokionez, etxekoez besteko isuriak direla joko da manufaktura edo industria jardueretatik, edo baliabide naturalen garapenetik, berreskuratetik edo prozesamendutik ateratzen den hondakin solido, oretsu, likido edo gaseoso oro, hozteko urak barne.

2. artikulua

Ordenantza honetan jasotako arauak honako hauei aplikatuko zaizkie: udalerrian kokatuta egonik etxekoez besteko hondakin urak isur ditzaketan etxebizitza edo antzekoei, instalazioei, establezimenduei, jarduerari, industriari nahiz biltegiei, diren publikoak edo pribatuak, edozein dutela ere titular, orain daudenei nahiz geroan ezarriko direnei. Horiei guztiei, oro har, jarduera deituko zaie.

3. artikulua

Etxeetatik eta gainerako tokietatik isurtzeko baldintzak eta mugak ezartzen dira ordenantza honetan, kontuan hartuz isurketek saneamendu sarean, araztegian eta ibai ibilgu hartzailean duten eragina eta azpiproduktuen balizko aprobetxamendua, eta eragotziz, betiere, instalazioak mantentzeko ardura duten langileentzako arriskuak sortzea.

4. artikulua

Era berean, isurkinak ateratzeko tresnei, estolderia sareko harguneei eta, oro har, helburu horretarako propio ezarritako instalazioei hirigintzako planeamendurako edo urbanizaziorako tresnetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie, bai eta eragiten dieten araudi sektorialak ere.

II. titulua. Isurien baldintzak

I. Kapituluua. Isurketa debekatuak

5. artikulua

Erabat debekatuta dago estolda sarera hondakin urak edo beste inolako hondakin solido, oretsu, likido edo gaseosoak isurtzea zuzenean nahiz zeharka, baldin eta isurkiok, beren izaera, propietateak eta kantitatea kontuan hartuta, berez edo beste hondakin batzuen eraginez estolda sarean ondoko efektuetako bat edo gehiago sortzen badituzte:

- a) Nahastura sukoiak edo leherkorrak sortzea.

b) Udal estolda sarea, bertako instalazioak eta araztegia osatzen dituzten materialen korrosioa.

c) Inguruneko baldintza gogaikarri, kaltegarri, toxiko edo arriskugarriak sortzea, instalazioak garbitu eta mantendu eta funtzionamendua zaindu behar duten langileei instalazioetara iristea edo lan egitea eragozten dietenak edo traba nahiz arrisku publikoren bat sor dezaketenak; zehatzago, kolektoreetan gas toxikoak sor ditzaketenak, gehienezko kontzentrazio maila haue-tatik gora: Jarduera gogaikarri, osasungaitz eta arriskutsuen Erregelamenduaren II. eranskina; 374/2001 EDaren xedapen indargabetzailearen a) letrak indargabetutako II. eranskina (374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Lanean agente kimikoekin zerikusia duten arriskuen kontra langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa (EAO, maiatzaren 1a). Indarraldia: 2001eko maiatzaren 5a

d) Jalkinak, inkrustazioak edo bestelako eragozpen fisikoak sortzea, ura kolektoreetan ibiltzea oztopatzen dutenak, edo estolda sarea garbitzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko lanak eragozten dituztenak, adibidez: errautsa, kedarra, harea, lokatza, lastoa, txirbila, beira, plastikoak, trapuak, lumak, mundruna, zura, zaborra, simaurra, metalezko piezak, animalien hondakinak, ilea, erraiak, baxerako piezak, amiantoa, edozein materialetako ontziak eta antzekoak, osorik egon nahiz txikitutako hondakinak izan.

6. artikulua

Debekatuta dago estolda sarera honako produktu hauetako edozein isurtzea:

a) Gasolina, nafta, petrolioa, eta destilazioko bitarteko produktuak, bentzenoa, toluenoa, xilenoa eta uretan nahastu ezin den edozein disolbatzaile edo likido organiko, erregaia edo sukoa dena.

b) Oinarri mineral edo sintetikoak duten olio industrial guztiak, hasieran esleitu zaizkien erabileretarako desegokiak diren lubrifikatzaileak eta, bereziki, errekuntza motorretan eta transmisio sistemetan erabilitako olioak, olio mineral lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak, sistema hidraulikoak eta beste emultsio batzuk.

c) Hondakinak, beren kontzentrazio edo ezaugarri toxiko edo arriskutsuengatik beren bali-zko efektu kaltegarrien tratamendu espezifiko edo aldiroko kontrola behar dutenak, bereziki Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen legerian araututakoak.

d) 6 baino gutxiagoko edo 10 baino gehiagoko pH balioa daukaten hondakin urak.

e) Disolbatzaile organikoak eta margoak, edozein proportzio eta zenbatekotan.

f) Kaltzio karburoa eta arriskutsuak izan daitezkeen beste substantzia solido batzuk (hidru-roak, peroxidoak, kloratoak, perkloratoak, bromatoak, nitruroak, sulfuroak eta abar).

g) 2519/1982 Errege Dekretuan (abuztuaren 2koa, erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun babesari buruzko arautegia onetsi zuena) eta 1753/1987 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren aldaketan ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakin, isotopo edo produktu erra-dioaktiboak.

II. Kapituluua. Onartzen diren isuriak

7. artikulua

Onartuko da udalaren estolderia sarera isurtzea parametro fisiko-kimiko hauetarako ezarritako mugak gainditzen ez dituzten efluenteak; hona hemen mugak:

PARAMETROA	UNITATEA	MUGA
Temperatura	°C	50
Solido esekiak	mg/l	700
Solido jalkikorak	ml/l	5
pH	pH	6tik 10era
DBO ₅	mg/l	600
OEK	mg/l	1000
Fenolak	mg/l	5
Detergente anionikoak	mg/l	12
Aldehidoak	mg/l	4
Pestizidak	mg/l	0,2
Kloruroak (Cl ⁻)	mg/l	2000
Sulfatoak (SO ₄ ⁻²)	mg/l	2000
Sulfitoak (SO ₃ ⁻²)	mg/l	10
Fluoruroak (F ⁻)	mg/l	10
Zianuroak (CN ⁻)	mg/l	1
Amoniakoa (NH ₃)	mg/l	30
Nitratoak (NO ₃ ⁻)	mg/l	20
Kjeldahl nitrogeno totala	mg/l	50
Fosfatoak (PO ₄ ⁻³)	mg/l	60
Aluminioa (Al)	mg/l	10
Artsenikoa (As)	mg/l	1
Barioa (Ba)	mg/l	20
Boroa (B)	mg/l	5
Kadmioa (Cd)	mg/l	0,2
Kobaltoa	mg/l	0,2
Kobrea (Cu)	mg/l	0,5
Gutzizko kromoa (Cr)	mg/l	6
Kromo hexabalentea (Cr ₆)	mg/l	0,5
Burdina (Fe)	mg/l	10
Manganesoa (Mn)	mg/l	2
Merkurioa (Hg)	mg/l	0,05
Molibdenoa (Mo)	mg/l	0,02
Nikela (Ni)	mg/l	2
Beruna (Pb)	mg/l	0,7
Selenioa (Se)	mg/l	0,5
Eztainua (Sn)	mg/l	10
Zinka (Zn)	mg/l	5
Sulfuroak	mg/l	10
Olioak eta koipeak	mg/l	75

Metalen gehieneko mugak guztizko metalenak dira, eta ez metal disolbatuenak.

8. artikulua

Isurketen erregimena erregularra eta jarraitua izan dadin, debekaturik daude lanaldian botatzen diren isurkinen batez besteko kontzentrazioa edota emaria hamabost minutuko epean bost halakotuta gainditzen duten isurketak, aldian-aldikoak nahiz espontaneoak.

Artikulu hau betetzeko beharrezkoa bada, isurkinak homogeneizatu eta neutralizatzeko alde zuzeneko tratamenduak ezarriko dira, bereziki erregulazio biltegiak.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa egin beharrik ez du eragotziko ordenantza honetan ezarritako gainerako baldintzak ere bete behar izatea.

III. kapitulua. Isurketa atipikoak

9. artikulua

Nahitaezkoa izango da ordenantza honetan ezarritakoa urratuko luketen istripuzko isurketak saihesteko neurri egokiak hartzea.

Larrialdiren bat gertatzen bada edo ezohiko isurketa egiteko gertuko arriskua badago, jardueraren titularrak berehala emango dio horren berri Asparreneko Udalari, instalazio publikoak eta ibai ibilgu hartzailea babesteko neurri egokiak hartzeko. Ondoren, txosten zehatza igorriko zaio udalari, datu hauekin:

- Isurketaren ezaugarri fisiko-kimikoak.
- Isurketaren bolumena.
- Iraupena.
- Isurketaren lekua.
- Zergatik gertatu zen.
- Hartu diren neurriak, eta berriro gertatu ez dadin egingo diren zuzenketa.

Udalak larrialdia edo arriskua zergatik sortu den ikertuko du, eta hori, ezertan ukatu gabe jardueraren titularrak izan ditzakeen erantzukizunak.

III. Titulua. Isuriak egiteko baimenak

I. kapitulua. Instalazio berrietarako baimenak

10. artikulua

Etxeko isuriak egiteko baimena Asparreneko Udalarekin ur hornidurarako sinatutako kontratuarekin batera doa.

Estolderia sarera etxekoez besteko isuriak egiteko baimena emateko baldintza izango da dena delako jarduera horren instalaziorako udalaren baimena lortu izana eta ordenantza hau betetzeko prebentziozko kontrola igarotzea.

Horretarako, JGOAAk eragiten dien jardueren instalazioei buruzko proiektuetan, justifikazio azterlan bat erantsiko da, prozesuko urek ordenantza honetan ezarritakoa bete dezaten jarriko diren neurri zuzentzaileei buruzkoa. Azterlanak atal hauek izango ditu gutxienez:

a) Uraren industria erabilerak.

Izenburu horren pean, uraren industria erabilera bakoitzeko, honakoak azaldu beharko dira gutxienez:

- Uraren fluxu diagrama, erabilera bakoitzeko.
 - Erabilitako emaria.
 - Horren ezaugarri fisiko-kimikoak.
 - Saneamenduarekiko edo zuzenketa instalazioarekiko lotunea, oinplanoan seinalatuta.
- b) Jarritako neurri zuzentzaileak.

Jarduera proiektuaren xede diren instalazioetan erabiltzen diren emari guztiek ez badute betetzen ordenantza honen 7. artikuluan ezarritako mugak, justifikatu egin beharko da, beti.

Justifikazio horretan honako atal hauek sartu behar dira, gutxienez:

- Erabili beharreko teknologia mota.
- Haren deskribapena, legeztatu beharreko jarduerarako.
- Haren kokapena, eta isurkina saneamendu sarera botatzen den amaierako puntua, biak oinplanoan seinalatuta.
- Behin tratatuta isurkinak dituen ezaugarri fisiko-kimikoak.
- Arazketan azpiproduktuak sortzen badira, zein xede ematen zaien, dituzten ezaugarrien arabera, 833/1988 Errege Dekretu uztailaren 20koan ezarritakoaren arabera.

11. artikulua

Udalaren estolderia sarera etxekoez besteko isuriak egiteko baldintza izango da egiaztatzea instalazio proiektuan edo instalazio lizentzian jasotako zuzenketa neurriak ezarri direnentz eta eraginkorrak direnentza; beharrezkoa izango da, ordea, jarduera baimena edukitzea, zeina irekitzeko edo abiarazteko baimenaren aurretik emango baita.

12. artikulua

Etxekoez besteko isuriak egiteko baimena behin-behinean eman ahalko da, baldin eta isurketaren izaeragatik beharrezkoa bada geroago saiakuntzak egitea edo instalazioen funtzionamendua egiaztatzea. Horrelakoetan, epea ezarriko da saiakuntzak edo egiaztapenak egiteko, eta, epe hori amaitutakoan, interesdunak behin betiko baimena eskatuko du. Epe horretan ur hornidurarako behin-behineko baimenak eman ahalko dira.

13. artikulua

Etxekoez besteko isuriak egiteko behin behitiko baimena beharrezkoa izango da jardueretarako ur hornidurako kontratuak egiteko..

II. Kapituluak. Lehendik diren jardueren instalazioak

14. artikulua

Ordenantza hau indarrean sartzean abian diren instalazioak edo instalazio lizentzia dutenak lizentzian bertan isuriak egiteko ezarritako mugak eta baldintzak bete beharko dituzte.

15. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen diren jardueretarako, beharrezkoa izango da isurtze baimen bat lortzea, eta, sei hilabeteko epean, hartara, arauetan eskatzen diren agiriak aurkeztuko dira, 10. artikuluan adierazi legez.

III. kapituluak. Jardueren instalazioa aldatzea

16. artikulua

Ezin izango da baimenik eman lehendik dauden instalazioak handitzeko edo aldatzeko, ez badira instalazio berriei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen handitutako edo aldatutako instalazioetan.

17. artikulua

Instalazio baten titularrak aldatetaren bat egin nahi badu lehengaietan, makinerian, produkzio prozesuan, arazketa sisteman edo saneamendu sisteman eta aldaketa horrek eragin egin badiezaioke saneamendu sarerako isurketen erregimenari, jakinaren ganean jarri beharko du Udala,, baimena eman dezan edo, behar izanez gero, zuzenketa egiteko agindu dezan.

18. artikulua

Beti ere, Udalak eska diezaieke jarduera instalatuei zuzentzeko antzemandako akatsak, ordenantza honetako eskakizunak bete daitezen.

IV. titulua. Isurien kontrola

I. kapitulua. Isuriak ikuskatzea

19. artikulua

Udalak, ikuskapen zerbitzuen bidez, ofizioz edo interesdunak eskatuta, saneamendu sarera isurtzen duten jarduerak ikuskatu eta zaindu beharko ditu aldizka.

Isurkinen kalitatean eragin dezaketen jardueren instalazioak ere ikuskatu eta zaindu beharko dira, eta bereziki erregistro kutxatilik, saneamendu hoditeriak, isurkinak sortzen dituzten prozesuak eta uren aurretiazko tratamendurako edo arazketarako instalazioak.

20. artikulua

Udalaren langileek egingo dituzte ikuskapen bisitak, eta ez da beharko jardueraren titularrari alde aurretik abisatzea..

Jardueren titularrek ikuskapena erraztu beharko dute, eta horretarako honako hauek bete beharko dituzte:

a. Ikuskatzaileari isurketarekin zerikusia duten instalazioetarako sarbidea ematea eta kontrolerako ekipamendua eta tresneria muntatzeko erraztasunak ematea.

b. Enpresak bere kontrolerako erabiltzen duen tresneria erabiltzeko baimena ematea, batez ere emariak neurtzeko, laginak hartzeko eta kasuan kasuko azterketak egiteko baliatzen direnak.

c. Ikuskatzaileei datuak, lanaren parteak, azterketak eta ikuskapenarekin lotuta eskatzen duten informazio guztia ematea.

Ikuskapenaren akta egingo da, eta sinatu egingo dute ikuskatzaileak eta ikuskapena egiten denean jardueraren ardura duen pertsonak.

II. kapitulua. Isurien laginak hartzea

21. artikulua

Jarduera bakoitzak bere saneamendua eduki behar du udalaren estolderia sarearen lotu-neraino; eta horretarako, lehendik dauden pabiloiak zatitzen direnean lurzattia zatitu gabe, edo lurzati berean elkarri atxikitako eraikinak egiten direnean, bere saneamendua ezarri beharko zaio eraikuntza unitate bakoitzari.

22. artikulua

Udalaren estolderia sarera isurtzen duten jarduera guztietan, hondakin uren erregistro kutxatila bakarra egongo da, jarduera osotik datozen hondakin urak jasoko dituen. Lurzattia- ren barruan egongo da, ikuskapen zerbitzuek sarbidea duten lekuan, inolako oztoporik gabe, eta bere funtzioa betetzeko behar bezain garbi.

Haren neurriak eta ezaugarriak egokiak izan beharko dira udalaren zerbitzu teknikoek laginak hartu ahal izan ditzaten eta isuritako emaria zehaztu ahal izan dezaten.

23. artikulua

Ordenantza hau indarrean sartzean abian diren jarduerak sei hilabeteko epea izango dute lagin bilketarako kutxatila ezartzeko, ordenantza honetan ezarritako baldintzak betez.

Epe hori urtebetera luzatuko da, baldin hainbat jarduerak partekatzen duten saneamendu saretik norberaren saneamendu sarea bereizteko obrak egin behar badira edo jarduera baten isurketa guztiak kutxatila bakarrera bideratzeko obrak egin behar badira.

24. artikulua

Jarduera batzuk bereziki kutsagarriak dira eta komeni da haien isurketen emaria eta kutsadura karga etengabe kontrolatzea. Horrelakoetan, udalak emaria neurtzeko, laginak hartzeko eta kontrolak egiteko ekipamenduak ezar daitezela agindu ahalko du.

Ekipamendu horiek jardueraren titularraren jabetzakoak izango dira eta udalak adierazten duen lekuan muntatuko dira. Kontserbazio egoera onean eduki beharko dira.

25. artikulua

Laginak hartzeko teknika aldatu egingo da egin beharreko zehaztapenaren arabera.

Debekatutako isurkinen kasuan unean bertako laginketa egin ahalko da, saneamendu instalazioko edozein tokitan eta edozein unetan.

Onartutako isurkinen kasuan, isurketaren amaierako kutxatilan egingo da laginketa, betiere isurketaren emariaren edo isurketa denboraren arabera.

Edozein modutan ere, laginak hiru bider hartuko dira, eta, hala, haietako bat izango da hasierako lagina; beste bat, kontraesaneko lagina (enpresa ikuskatuari entregatuko zaio kontranalisisa egin dezan); eta, hirugarrena, lagin erabakitzailerak (haren emaitzak behi betikoak izango dira aurreko bi laginen arteko aldea ehuneko 20 baino handiagoa bada).

III. kapitulua. Isurien kontrol analitikoa

26. artikulua

Udalaren ikuskapen zerbitzuek jasotako laginak laborategi homologatu batean aztertuko dira hasiera batean.

27. artikulua

Isurkinen ezaugarrien analisisetan laborategi horrek ezarritako ereduak erabiliko dira, uretarako metodo ofizialei buruzko legerian eta, hala behar denean, "Standard Methods for the Examination of Water and Waste Water" eskuliburuan adierazitakoari jarraituz.

28. artikulua

Hasierako laginaren analisiaren emaitzekin ados ez badago, interesdunak kontraesaneko analisisa egin ahalko du, zigilatuta eman dioten laginarekin.

Horretarako, interesdunak zortzi eguneko epea izango du, udalak lortutako emaitzak jasotzen dituenetik, laborategi homologatu batek lagina onartu duela jakinarazteko.

Laborategi homologatu bat aukeratzen badu, interesdunak hilabeteko epea izango du, hasierako analisiaren jakinarazpenetik hasita, kontraesaneko analisiaren emaitzak udalari aurkezteko. Epe horretan kontraesaneko analisisik aurkeztu ezean, hasierako analisiaren emaitzari eutsiko zaio.

29. artikulua

Hasierako analisiaren emaitzak eta kontraesaneko analisiarenak, ordenantza honetan finkatutako isurketa mugak gainditu diren ala ez zehazteari dagokionez, desberdinak badira, analisi erabakigarria egingo da.

Analisi hori Udalak izendatzen duen laborategi homologatuan egingo da, edo, homologatuta ez egon arren, udalak eta interesdunak adosten duten laborategian.

Udalak daukan lagin zigilatuekin egingo da analisi erabakigarria, 25. artikuluan azaldutako prozedurari jarraituz.

Analisi horren emaitzek erabakiko dute ordenantza honetan ezarritako mugak gainditu diren ala ez.

Kostuek agerian jartzen badute ez direla baldintzak bete, edo ez betetze horren ondoriozko kostuak badira, ez betetzea eragin duen isuriaren titularra den harpidedunak ordaindu beharko ditu.

V. Titulua. Arau haustek eta zehapenak

30. artikulua

Ondorengo hauek hartuko dira ordenantza honen aurkako arau-haustetzat:

- a. Jarduera egiteko eta instalazioak abian jartzeko baimenik ez izatea.
- b. Isurketa baimenik izan gabe estolda sarea erabiltzea.
- c. Ordenantza hau aplikatuz elementu zuzentzaileak instalatzeko agintzen denean jaramonik ez egitea edo berandutzea.
- d. Lehendik dauden jarduerak behar bezala ikuskatu ahal izateko egin beharreko egokitzeak 15. eta 23. artikuluan ezarritako epeetan ez egitea.
- e. Debekatutako edo itxitako instalazio edo aparatuak abian jartzea.
- f. Debekatuta dauden edo onartutako mugak gainditzen dituzten isurketak egitea, eta, halaber, aldi behingo edo inoizkako isurketetarako 8. artikuluan ezarritako mugak gainditzea.
- g. Saneamendu edo arazketa instalazioetarako hurre-hurreko arrisku egoeren edo larrialdien berri ez ematea Udalari, eta larrialdia edo arrisku egoera amaitutakoan txostenik ez igortzea.
- h. Arautegi honetan ezarritako mugak gainditzen dituzten istripuzko isurketak gutxitzeko hartu behar diren neurriak ez hartzea.
- i. Ordenantza hau betetzen den jakiteko egiten diren ikuskapen lanak oztopatzea.
- j. Isurketa instalazioak behar bezala ez mantentzearen ondorioz ikuskapen lanak zailtzea.

31. artikulua

Arau hausteengatik 6.000 euro arteko isunak ezarri ahal izango dira, eta instalazioak aldi baterako edo betirako itxi.

Jarduera aldi baterako edo behin betiko ixtea, hiru isun ezarri eta gero baino ezin ezarri den zehapena izango da.

Egindako arau haustea jarduera egiteko baimenik ez izatea bada, ordea, jarduera ixteko agindu ahal izango da harik eta behar diren baimenak lortzen diren arte.

32. artikulua

Jarduera ixten bada, zehapen horrek berekin ekarriko du jarduerarako ur hornidura aldi baterako edo behin betiko etetea, edo jarduera itxita egon behar den aldirako etetea.

33. artikulua

Zehapenak ezartzeko prozedura hemen dago araututa: jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregelamendua.

34. artikulua

Zehapena ezartzeak ez du jardueraren titularra salbuetsiko eragin duen kaltea konpondu beharretik eta udal instalazioetan egindako kalteen erantzukizunetik.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta handik 15 egunera jarriko da indarrean, eta orduan indarrik gabe geratuko dira haren manuen aurka dauden edo haiekin bat ez datozen udal xedapen guztiak.

Udal sarera egiten diren isuriak zaintzeko eta kontrolatzeko plana

1. Definizioa

Udalaren estolderia sarera egiten diren isuriak zaintzeko eta kontrolatzeko plana oinarri-zko tresna bat da uren kudeaketan, eta ezarritako neurriak eraginkorrak direla eta ezarritako helburuak noraino betetzen diren ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa eman behar du.

Haren diseinuak aukera eman behar du, besteak beste, urak zer egoeratan diren jakiteko; zenbateraino kutsaturik dauden jakiteko; kutsadura unean uneko eta lausoko iturrietatik datozen kutsagarriak isurtzearen ondorioak baloratzeko; lehentasunezko gaiak izanik gertatzen den narriatzea saihestu edo murrizteko; eta abar.

2. Xedeak

Hona zeintzuk diren helburuak:

- Estolderiako kolektoreetan hondakin uren kutsadura apurka-apurka gutxitzea.
- Hondakin uren araztegia mantendu eta ustiatzearen kostuak murriztea, eta orobat murriztea estolderiaren beraren eta harekin lotutako osagaien mantentze kostua (ponpatze estazio, kontrol putzu, eta abar).
- Kanalizazioak babestea osagai erasokor edo korrosiboen kontra.
- Sarean butxadurak eta oztopoak ez izateko prebentzioa.
- Estolderien mantentze lanetan aritzen diren langileentzako arriskua gutxitzea (espazio itxiak)
- Osagai toxikoekiko edo arazketa prozesuen inhibitzaileekiko industria isuriak kentzea
- Arazketaren ondoriozko azpi produktuak berrerabiltzeko bermea.
- Ingurumenerako istripuen arriskua ezabatzea.

3. Erabiltzaile motak

Erabiltzaileak sailkatzen dira isuriak daukan kutsadura bolumen eta kargaren arabera:

	BOLUMENA
A MOTAKO ERABILTZAILEA (etxebizitza eta kidekoak)	< 165 m ³ /urteko
B MOTAKO ERABILTZAILEA	165 m ³ /urteko eta 1100 m ³ /urteko bitartean
C MOTAKO ERABILTZAILEA	> 1100 m ³ /urteko

Karga kutsagarriko batez besteko parametroak dira biztanle baliokide batentzat ezarritakoak, alegia:

KUTSAGARRIAREN BATEZ BESTEKOA BIZTANLE BALIOKIDEARENTZAT	
DBO5	60 g/egun
OEK	135 g/egun
SS	90 g/egun
N	10 g/egun
P	4 g/egun

4. Ikuskapen plana determinatzea

1. fasea. Erabiltzailearekin lotutako informazioa biltzea.

2. fasea: Erabiltzailea katalogatzea eta sailkatzea isurtzeko haren ahalmenaren arabera.

Zein alderdi izan behar diren kontuan:

- Isurketaren bolumena.
- Erabiltzaileak daraman jarduera (baldin eta jarduerarik badarama).
- Isuriaren karga kutsagarria.
- Neurri zuzentzaileak.

3. fasea: Ikuskapen aldizkakotasun egokia esleitzea erabiltzaile bakoitzari.

Ikuskapen plana aldizka berrikusiko da, eta kontrol plan honen eranskin gisa onartuko da.

5. Ikuskapen motak

1. Ikuskapen planifikatuak.

Kutsatzaile izan daitezkeen erabiltzaileei egiten zaizkie ikuspenok, ikuskapen planean kontrolatzeko ezarritako aldizkakotasunaren arabera.

Jarduera hauek gauzatzen dituzte:

- Produkzio prozesua eta urak hartzen dituen elementuak zaintzea.
- Unean uneko isurien kalitatea lekuan bertan egiaztatzea.
- Unean uneko isurien hiruna lagin jasotzea laborategian aztertzeko.
- Laginak laborategi homologatuetan analizatzea.
- Neurri zuzentzaileak badabiltzan edo ez egiaztatzea.
- Isurketen bilakaera zaintzeko eta barne kontrola egiteko programak eta isurketak ahalik minimizatzeko planak berrikustea.
- Isuriak egiteko baimenak eta isuri likidoekin lotutako beste ingurumen betebeharrak batzuk berrikustea.
- Ikuskatze akta.

Emaizta analitikoaren ez-betetzeren bat atzematen eta berresten bada, aukeran izango da ohar-tarazpen prozesua eta/edo zehapen espedientea eta/edo saneamendu eta hornidura lotuneak ixteko prozesua abiaraztea, eta funtsatu egin beharko da ezohiko ikuskapen oro.

2. Ezohiko ikuskapenak.

Kutsatzaile izan daitezkeen erabiltzaileei egiten zaizkie, lehenago araudiaren ez-betetzeren bat atzeman izan bada haienean ikuskapen planifikatuen edo emandako beste informazio motaren baten bitartez.

Jarduera hauek gauzatzen dituzte:

- Egiaztatzen dituzte enpresek beren efluenteak indarrean den legedian ezarritako baldintzen arabera egokitzeko.
- Unean uneko isurien hiruna lagin jasotzea laborategian aztertzeko.
- Laginak laborategi homologatuetan analizatzea.
- Ikuskatze akta.

Emaitza analitikoaren ez-betetzera bat atzeman eta berresten bada, aukeran izango da ohar-tarazpen prozesua eta/edo zehapen espedientea eta/edo saneamendu eta hornidura lotuneak ixteko prozesua abiaraztea, eta funtsatu egin beharko da ezohiko ikuskapen oro.

6. Ez-betetzeak komunikatzeko protokoloa

Lehenbiziko baldintza. Ez-betetzea atzeman ondoren, hilabeteko epea emango zaio enpresari arazoari konponbidea eman diezaion eta udalari entrega diezaion egoera anomaloa zuzendu dela justifikatzen duen analitika.

Bigarren baldintza. Egoera anomaloa konpondu izanaren analitika justifikagarria aurkeztu ezean, berriro eskatuko zaio enpresari, eta 10 egun emango zaizkio, analitika entregatzeko jakinarazpena egin ondoren.

Hirugarren baldintza. Egoera anomaloa konpondu izanaren analitika justifikagarria aurkeztu ezean, zehapen espedientea abiaraziko da.

7. Isurien laginen analisirako protokoloa

Analitikak laborategi homologatuan egingo dira, seta laborategiak laginak araudian ezarritako protokoloaren arabera hartzeko prozedura eduki beharko du.

Analitikak egingo dira hiruna lagin hartuta, eta, hala, haietako bat izango da hasierako lagina; beste bat, kontraesaneko lagina (enpresa ikuskatuari entregatuko zaio kontranalisia egin dezan); eta, hirugarrena, lagin erabakitzaila (haren emaitzak behi betikoak izango dira aurreko bi laginen arteko aldea ehuneko 20 baino handiagoa bada).

Enpresa bakoitzerako parametro berariazkoak ezarriko dira, honako hauek gutxienez: pH, solido esekiak, DB05, DQO, nitrogenoa, fosforoa, olioak eta koipeak, eta detergenteak.

8. Zehapenak

Zehapenak udal ordenantzan jasotakoak izango dira.

Ez betetze batek agerian jartzen dituen gastuak edo haren ondoriozkoak enpresari lotuko zaizkio.

I. eranskina: 2016-2018 ikuskapen plan urterokoa

Zein enpresak behar duten analitika.

ENPRESA	JARDUERA	ERABILTZAILA MOTA	ANALISIA	MAIZTASUNA
Fibracat Absorbent SL	Xurgatzaileak	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Interenvases- Sertego	Toxikoak berreskuratzea	C	Oinarritzkoa, disolbagarriak	Urtero
Jesús María Sainz.	Okindegia	B1C	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Baskomol, SL	Lantegia	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Iduia aroztegia	Aroztegia	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Alegría Hermanos, SC	Garajea	B1	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Hiru urterik behin
Röchling Automotive	Pieza plastikoak, automozioa	B2	Oinarritzkoa	Bi urterik behin
Refesa	Txatarra	C	Oinarritzkoa	Urtero
Andrés Duran Sánchez	Mekanika tailerra	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Astrasa, SA	Biltegia eta gasolindegia	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Arraia oil, SL	Gasolindegia, jatetxea	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Europark Madrid, SA	Ibilgailu biltegia	B1	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Hiru urterik behin
Garikoitz Lopez de Arbina	Arotzeria metalikoa	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Transportes Legaire, SL	Logistika	B1	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Hiru urterik behin
Araia Autoak, SL	Mekanika tailerra	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Pferd Abrasivos, SL	Haize babesak:	B2	Oinarritzkoa	Bi urterik behin
Transportes Vicuña, SA	Logistika	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Neumáticos Michelin, SA	Pneumatiko biltegia	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Olan, SA	Profileria:	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Acerasa	Profileria	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Patinter España, SL	Logistika	B2	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Bi urterik behin
Voaser, SA	Edarien banaketa	B1	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Hiru urterik behin
Gerposa, SA	Logistika	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Trailer de Navarra, SL	Komertziala tailerra gabarrak	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Gerardo Berasategui	Mekanika tailerra	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Aitor Duran Sanchez	Mekanika tailerra	B1	Oinarritzkoa	Hiru urterik behin
Truck Center San Roman	Gasolindegia, jatetxea	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Okioil, SL	Gasolindegia, jatetxea	C	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Urtero
Ka xii Frigo, SLU	Ibilgailuak konpontzea	B1	Oinarritzkoa, hidrokarburoak	Hiru urterik behin

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Araia, 2016ko ekainaren 28a

*Alkatea***CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ**